

DEKALOGO A 2015

Komunikabideek, informazio emaile nagusiak izanik, gizarteko arlo guztietan, baita kirolean ere, emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzen duten balioak proiektatzeko erantzunkizun soziala dute.

Badira hamaika dokumentu agerian jarri dutenak kirol arloan emakume kazetariak gizonak baino gutxiago direla eta komunikabideetan desberdintasuna dagoela emakume kirolariei buruzko albisteei dagokienez. Aipatu desberdintasuna kuantitatiboa izateaz gain kualitatiboa ere bada, izan ere, gai honen inguruan egindako ikerketek¹ emakume kirolarien irudi estereotipatuak eta sexistak errotik kentzeko garrantzia azpimarratu dute. 2013 urtean Eusko Jaurlaritzak egindako **Emakumeen kirola: presentzia eta trataera orotariko euskal prentsan eta kirol egunkarietan** ikerketaren arabera, emakumeek egiten duten kirolari buruzko albiste kopurua gizonak egiten dutenarena baino askoz txikiagoa da; erabiltzen den hizkuntzak emakumeak ezkutuan uzten ditu; eta oraindik ere feminitatearekin lotzen diren estereotipoak zabaltzen dira.

¹CAA (2008). Estudio sobre género y deporte en televisión. Consejo Audiovisual de Andalucía. Bruce, T., Hovden, J. y Markula, P. (Eds.) (2010). Sportswomen at the olympics. A global Content Analysis of Newspaper Coverage. Rotterdam: Sense Publishers. Women's Sport and Fitness Foundation UK (2011). The big deal? 2011: the case for commercial investment in women's sports.

Emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005
Legeak, otsailaren 18koak, honakoa dio 26 Artikuluan:

1.- Hedabideetako batek ere ezin izango du adierazi, bere jarduna Euskal Autonomia Erkidegoaren baitakoa baldin bada, pertsonak, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela, ez eta objektu sexual soilak direla ere. Orobat, ezingo zaie zabalkundea eman emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duten edukiei.

2.- Gizarte-komunikabideek, beren programazioak egiteko orduan, ez dute hizkera sexistarik erabili behar, eta emakumeen parte-hartze aktiboa eta sexu bien presentzia orekatua eta irudi anitza bermatu behar dute, edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik aparte, eta bereziki zaindu behar dituzte ume zein gazteentzako edukiak. Bestalde, emakumeek sustatutako edo emakumeek zuzendutako jarduera politiko, social eta kulturalen zabalkundea bermatu behar dute, gizonetik berdintasunean, eta orobat emakumeak ahalduentzako lagungarri diren jarduerak ere.

Bestalde, Europar Batasunak **ekintza programa** bat xedatu du 2014-2020 bitartean kirolean emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko. Komunikabideek aipatu programako ekintza ildo bat osatzen dute, eta bertan hainbat erronka azaltzen dira kirolean genero estereotipoak ekiditeko; emakume eta gizonen kirol gertaeren estaldura orekatzeko; eta emakume eta gizonen presentzia orekatzeko Europako kirol komunikabideetako departamentu ezberdinetan.

Komunikabideek kirolean emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko:

GOMENDIOAK²:

- 1 KIROLARIAK IKUSTARAZI ETA BALORATU.** Kirol arloan emakumeek dituzten lorpenak ikustarazi eta baloratu: kirolarienak eta baita emakume entrenatzaile, epaile, zuzendari eta kudeatzaileenak ere.
- 2 INFORMAZIO GEHIAGO.** Emakumeek egindako kirolari buruzko informazio gehiago eman.
- 3 HIZKUNTZA ZAINDU.** Hizkuntza inklusiboa eta ez sexista erabili.
- 4 GORPUTZA EZ DA ALBISTEA.** Ez erabili emakume kirolarien gorputza informazio hartzaileak erakartzeko.
- 5 ESTEREOTIPORIK GABE.** Ez lotu estereotipo zehatzak emakume edo gizonekin, esaterako: edertasuna eta sinpatia, edo indarra eta ausardia.
- 6 KIROLEK EZ DUTE GENERORIK.** Ez etiketatu kirolak maskulinoak edo femeninoak izango bailira.
- 7 EMAKUMEAK KIROL KAZETARITZAN.** Emakume adituen partaidetza sustatu eta informazio Iturri izan daitezten bultzatu. Halaber, emakumeen iritziak eta testigantzak erabili albisteetan.
- 8 GENERO GAIETAN TREBAKUNTZA.** Komunikazio arloko profesionalak haserako prestakuntzan zein prestakuntza jarraian genero ikuspegiaren trebatzeko garrantziaz jabetu.
- 9 ERANTZUNKIZUNA ETA ERRESPETUA.** Arlo honetako desberdintasunei buruz informatu eta emakumeek kirol arloan berdintasuna lortzeko egiten dituzten aldarrikapenak errespetatu.

²Adaptado de: López Díez, P. (2011). Deporte y Mujeres en los Medios de Comunicación. Sugerencias y Recomendaciones. Madrid: Consejo Superior de Deportes. <http://www.pilarlopezdiez.eu/documents/CSD.LibroDeporteymujeres.pdf>